

**IKASTARO ESPEZIALIZATUA
TOKIKO GIZA GARAPENA**

IRAKASKUNTZAKO GIDA

IRAKASGAIA

Tokiko Giza Garapenaren Alderdi Ekonomikoa: Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Irakasleak: Luis Guridi y Juan Carlos P. de Mendiguren

Luis Guridi Aldanondo



Ekonomian doktorea UPV/EHUtik. Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea unibertsitate horretan. HEGOA - Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko zuzendaria (UPV/EHU). Hegoa Institutuak eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV sailen Garapen eta Nazioarteko Lankidetzeta master ofizialeko zuzendaria. Ekonomia soziala eta solidarioa aztertzea eta tokiko giza garapenarekin duen zerikusia ikustea dira bere ikerketako ildo nagusiak.

Juan Carlos Pérez de Mendiguren



Ekonomia Aplikatuko doktoregoa amaitzen ari da, UPV/EHU, unibertsitate horretan Ekonomia Aplikatuko katedraduna den Koldo Uncetaren zuzendaritzapean. Doktoregoan ikertzen dituen gaiek Euskal Herriko ekonomia sozial eta solidarioarekin dute zerikusia. Une honetan, Enpresen Antolakuntzako Saileko irakaslea da. Bestetik, HEGOA - Nazioarteko Lankidetzako eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko kidea da UPV/EHU. Irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeatze-lanak egiten ditu bertan. Ekonomia soziala eta solidarioa, enpresa soziala eta tokiko giza garapena dira bere ikerketako ildo nagusiak.

SARRERA

Tokiko giza garapenak hainbat alderdi ditu, eta horietako bat ekonomiko-produktiboa da. Gure ustez, ekonomia soziala eta solidarioa eraikitzen eta sustengatzen duten oinarriek eta balioek dituzte gaitasunik onenak tokiko giza garapenak aurrera egin dezan eta indartu dadin.

Ekonomia soziala XIX. mendearen erdialdean sortu zen, jendarte haietan zeuden arazo jakin batzuei erantzuna emateko; eta, mende horretan eta XX. mendean, bilakatzen joan da etengabe. Joan den mendearen amaieran, era nabarmenean hedatu zen, gerra ondoko zabalkunde ekonomikoaren amaieran sortu zen krisialdiaren eta horrek ekarri zituen aldaketa sozialen ondorioz. Horiek horrela, gaur egun, forma ekonomikoen sorta zabala dugu, estatuaren eta merkatuaren artean. Forma horiek antolakuntzako molde ugari hartzen dituzte, milioika pertsona multzokatzen dituzte mundu osoan, jarduera ekonomikoaren sektore guztietan, eta gero eta garrantzi gehiago dute balio soziala eta enplegua sortzeko.

Ekonomia sozial eta solidarioaren formak modu nabarmenean ugaltzen dira, ekonomia-mota hori elkartasun eta lankidetzako oinarrietan eta balioetan oinarritzen delako, modu berri bat eskaintzen duelako ekonomia eta pertsonen arteko harremanak ulertzeko, era berri bat ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko, eta molde berri bat lanak jendartearen zeregina ulertzeko, betiere, benetako giza garapentzat hartzen dugun zera horretan oinarrituta, eta pertsonak –emakumeak eta gizonak– garapenaren eta ongizatearen

helburutzat hartuta –eta ez tresna huts gisa, ekonomiaren hazkundera lortzeko–, ingurumen aldetik iraunkorra eta arlo sozialean zuzena den jendartea lortu bitartean.

Ekonomia sozial eta solidarioak ahalmen argiak ditu tokiko giza garapenaren alde egiteko, eta oinarrian dituen balioak eta printzipioak oso lagungarriak dira giza gaitasun nagusiak eta hartzen den garapenaren ikuspegia sustengatzen duten gaitasun kolektiboak sortzeko eta sustatzeko.

HELBURUAK

Helburu orokorra

Ikasgai honen bidez, oinarri teorikoak eta doktrinalak eskaini nahi ditugu, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioek eta balioek giza gaitasun indibidualak eta kolektiboak eta, beraz, giza garapena bera handitzeko ekarpen handiagoa egingo dutela babesteko, betiere, kontuan izanik giza gaitasunak funtsezko erreferentia direla jendartea garatzeko estrategiak proposatzerakoan.

Helburu zehatzak

- a) XIX. mendean barrena ekonomia soziala eta solidarioa sortu zeneko testuinguru historikoei heltzea.
- b) Ikuspegi panoramikoa izatea ekonomia sozial eta solidarioak XIX. eta XX. mendeetan izan duen bilakaeraz, eta mendearen bigarren zatian izan duen zabalkundeaz.
- c) Gaur egun ekonomia sozial eta solidarioaren izenpean sartzen diren ekintzailatzamoten tipologia konplexua ezagutzea. Beren definizioak eta ezaugarriak –juridikoak eta antolakuntzakoak– aztertzea eta erkatzea, lurralde eta jendarteko testuinguruetan kokatu ahal izateko.
- d) Ekonomia soziala eta solidarioa sostengatzen duten oinarri kontzeptualak lantzea, bere iturri doktrinal nagusiak aipatuta.
- e) Ekonomia sozial eta solidarioak giza gaitasunak –indibidualak eta, batez ere, kolektiboak– sustatzeko eta finkatzeko egin dituen ekarpenak eta izan dituen harremanak aztertzea, giza garapenaren xedea eta helburua gaitasun horiek sendotzea dela kontuan izanda.

EDUKIAK

1. Ikasgaia.- Ekonomia sozial eta solidarioaren sorrera eta bilakaera. Lehen ikasgai honetan alderdi hauek azalduko ditugu: ekonomia sozialaren sustraiak eta sorburuak XIX. mendean, XX. mendearen bigarren zatian izan duen bilakaera, eta XX. mendearen amaieran sortutako ekonomia solidarioaren joera berriak.

2. Ikasgaia.- Ekonomia sozial eta solidarioaren tipologiak. Bigarren ikasgaian, zehatz aztertuko ditugu ekonomia publikoaren eta ekonomia kapitalista tradizionalaren artean aritzen diren enpresen eta erakundeen sektore zabalak izan ditzakeen tipologia desberdinak, era askotako figura juridikoak eta administratiboak hartuta. Horrez gain, Europako eta Amerikako ekonomia sozial eta solidarioaren joera nagusiak landu eta aztertuko ditugu, hala tradizio anglofonokoak nola frankofonokoak. Horrez gain, XX. mendearen bigarren zatian Latinoamerikan izan diren beste joera batzuk ikusiko ditugu.

3. Ikasgaia.- ESSaren alderdi normatiboak. Gai honetan ekonomia sozial eta solidarioaren sostengua diren oinarri normatiboak ikertuko ditugu. Arretaz landuko ditugu bere definizio kontzeptuala egiteko eta ezaugarriak zehazteko sostengu eta iturri gisa hartzen dituen joera doktrinal nagusiak. Ildo horretan, aurreko mendeko joera batzuk – adibidez, instituzionalismoa– eta XX. mendean garatu diren beste batzuk aztertuko ditugu.

4. Ikasgaia.- Gaitasunen ikuspegia eta ekonomia soziala eta solidarioa. Giza gaitasunak sendotzeko prozesuarekin izan ditzakeen loturen bidez, ekonomia sozial eta solidarioak tokiko giza garapenari egin dizkion ekarpenak ikusiko ditugu, eta argudio batzuk emango ditugu horri eusteko. Horrez gain, ekonomia sozial eta solidarioak gaitasun kolektiboak garatzeko egin dituen ekarpenak ikusiko ditugu, modu kontzeptualean garatu dituzten egile batzuek zehaztutako eran.

PROGRAMA

1. Ikasgaia.- Ekonomia sozial eta solidarioaren sorrera eta bilakaera.

1.1.- Ekonomia sozialaren sorrera XIX. mendean: kooperatibismoa eta mutualismoa. 1.2.- Ekonomia sozialaren bilakaera gerra ondoko zabalkundean. 1.3.- ESSaren zabalkundea 90eko hamarkadatik aurrera.

2. Ikasgaia.- Ekonomia sozial eta solidarioaren tipologiak.

2.1.- Sarrera. 2.2.- Ekonomia soziala: definizioa eta tipologiak. 2.3.- Irabazteko asmorik gabeko erakundeak. 2.4.- Enpresa sozialak: tipologiak eta ezaugarriak. 2.5.- Ekonomia solidarioa: definizioa eta aztertzeke ikuspegiak.

3. Ikasgaia.- Ekonomia sozial eta solidarioaren alderdi normatiboak.

3.1.- Sarrera. 3.2.- Joera instituzionalistak. 3.3.- K. Polanyren ekarpenak: estatua, merkatua eta elkarrekikotasuna. 3.4.- Ekonomia feministaren ekarpenak. 3.5.- Ekonomia soziala eta solidarioa eta iraunkortasuna. 3.6.- Andeetako komunitateko ekonomiaren ekarpenak. 3.7.- Giza beharrezanaren ikuspegiak eta ekonomia soziala eta solidarioa.

4. Ikasgaia.- Gaitasunen ikuspegia eta ekonomia soziala eta solidarioa.

4.1.- Sarrera. 4.2.- Gaitasunen ikuspegia eta ekonomia soziala eta solidarioa. 4.3.- Ekonomia soziala eta solidarioa eta gaitasun kolektiboak.

METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA

Ikasgaia ebaluatzean, kontuan hartuko dugu ikasgai bakoitzean proposatutako jarduerak betetzean erakutsitako maila eta kalitatea. Era horretan, ikasgaietan lantzen ditugun oinarritzko alderdiei buruzko ulermen-maila zein den jakin ahal izango dugu. Ikasgai bakoitzean, jarduera hauek egitea proposatzen dugu.

Ikasgaia **ebalutzeko** erabiliko ditugu:

- 1) Oinarritzko dokumentuko gai guztiak irakurtzea.
- 2) Nahitaez irakurri beharreko testuak irakurtzea.
- 3) Programako lau ikasgaiekin zerikusia duten jarduerak egitea.

JARDUERAK

1. Ikasgaiako jarduerak

a) Irakurri dokumentuak, baina adierazita dauden orriak bakarrik:

- 1. Ikasgaiako dokumentu nagusia.
- LAVILLE, Jean-Louis (2003); A New European Socioeconomic Perspective. *Review of Social Economy*, 61:3, 389-405, DOI:10.1080/0034676032000115831. Hemen eskuragarri: <http://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/0034676032000115831> (389-395 orriak).
- MONZÓN, José Luis; CHAVES, Rafael (2012); La economía social en la Unión Europea, COMITÉ ECONOMICO Y SOCIAL EUROPEO. Hemen eskuragarri: <http://www.eesc.europa.eu/resources/docs/qe-30-12-790-es-c--2.pdf> (13-17 orriak).
- PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos; ETXEZARRETA, Enekoitz; GURIDI, Luis (2009); "Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate". *Papeles de Economía Solidaria*, 1. zk., REAS. Bilbo. Hemen eskuragarri: http://www.economiasolidaria.org/papeles_ES_1 (osorik).

- b) Azaldu ESSak 90eko hamarkadako bigarren zatian izan zuen zabalkundearen arrazoiak, gehienez 1.000 hitzetan.

2. Ikasgaiako jarduerak

- a) Irakurri dokumentuak, baina adierazita dauden orriak bakarrik:
- 2. Ikasgaiako dokumentu nagusia.
 - MONZÓN, José Luis; CHAVES, Rafael (2012); La economía social en la Unión Europea, COMITÉ ECONOMICO Y SOCIAL EUROPEO. Hemen eskuragarri: <http://www.eesc.europa.eu/resources/docs/qe-30-12-790-es-c--2.pdf>. Irakurri 22-38 orriak.
 - RED DE ECONOMÍA ALTERNATIVA Y SOLIDARIA (REAS) (2011); “Carta de Principios de Economía Solidaria”. Hemen eskuragarri: http://www.economiasolidaria.org/files/CARTA_ECONOMIA_SOLIDARIA_REAS.pdf (osorik).
 - PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos; ETXEZARRETA, Enekoitz; GURIDI, Luis (2009); “Economía Social, Empresa; Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate”. *Papeles de Economía Solidaria*, 1. zk. REAS. Bilbo. Hemen eskuragarri: http://www.economiasolidaria.org/papeles_ES_1 (osorik).
- b) Deskribatu ekonomia sozialaren, irabazteko asmorik gabeko erakundearen eta ekonomia solidarioaren artean dauden desberdintasun nagusiak, gehienez 1.000 hitzetan.

3. Ikasgaiako jarduerak

- a) Irakurri dokumentuak, baina adierazita dauden orriak bakarrik:
- 3. Ikasgaiako dokumentu nagusia
 - GOUGH, Ian (2008); “El enfoque de las capacidades de M. Nussbaum: un análisis comparado con nuestra teoría de las necesidades humanas”. *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100. zk., CIP-Ecosocial/Icaria, 2007/08 negua. Hemen eskuragarri: <http://www.otrodesarrollo.com/desarrollohumano/GoughEnfoqueCapacidadesNusbaum.pdf> (osorik).
 - QUIROGA, Natalia (2009); “Economías feminista, social y solidaria. Respuestas heterodoxas a la crisis de reproducción en América Latina”. *ICONOS*, 33. zk. FLACSO. Ecuador, 77-89 or. Hemen eskuragarri: <http://www.flacso.org.ec/docs/i33quiroya.pdf> (osorik).
 - HINKELAMMERT, Franz; MORA, Henry (2009); “Por una economía orientada a la reproducción de la vida”. *ICONOS. Revista de Ciencias Sociales*, 33. zk., 39-49 or. FLACSO. Hemen eskuragarri: <http://www.flacso.org.ec/docs/i33franz.pdf> (osorik).

- PÉREZ OROZCO, Amaia (2012); “De vidas vivibles y producción imposible”. Hemen eskuragarri: http://anticapitalistas.org/IMG/pdf/de_vidas_vivibles_y_produccion_imposible.pdf (osorik).
- HUANACUNI, Fernando (2010); Buen Vivir / Vivir Bien Filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales andinas. Coordinadora Andina de Organizaciones Indígenas – CAOI. Hemen eskuragarri: <https://www.reflectiongroup.org/stuff/vivir-bien> (osorik).
- GENDRON, Corinne; GAGNON Christiane (2004); Développement durable et économie sociale: convergences et articulations. Cahiers de l'ARUC-ÉS. Hemen eskuragarri: <http://www.ess-europe.eu/wp-content/uploads/2012/04/ES-et-DD.pdf> (25-43 orriak).

b) Azaldu zein diren ekonomia sozial eta solidarioak joera ekonomiko batzuetatik berreskuratu dituen ideia nagusiak, gehienez 1.000 hitzetan.

4. Ikasgaiako jarduerak

a) Irakurri dokumentuak, baina adierazita dauden orriak bakarrik:

- 4. Ikasgaiako dokumentu nagusia.
- SABÍN GALÁN, Fernando; FERNÁNDEZ CASADEVANTE, José Luis.; Bandrés de Lucas, Iñigo (2012); *FACTOR C. Factores de resistencia de las microempresas cooperativas frente a la crisis y recomendaciones para un fortalecimiento cooperativo del sector de lo social*. Hemen eskuragarri: <http://www.andaira.net/index.php/experiencia/proyectos/investigacion-social-aplicada/60-factor-c> (1-21 orriak).
- CEPES (2013); El impacto socioeconómico de las entidades de economía social. CEPES/ECOI. Hemen eskuragarri: http://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/recursos/1/impacto_socioeconomico_economiasocial.pdf (65-124 orriak).

c) Azaldu ESSak giza gaitasunei ekarpen egiteko dituen ahalmenez duzun ikuspegia. Horrez gain, egin hausnarketa pertsonal bat eta esan, zure ustez, ekintzailtza jakin batzuk arautzen dituzten oinarriak ezarri ahal diren funtzionamendu ekonomiko orokorrean, instituzio eta erakunde publikoek hainbat esparrutan dituzten jokabideetan, eta jendarteak oro har dituen jokaeretan. Erabili 1.000 hitz gehienez.